



## Euskararen berri OLAtu gainean



### 2012ko udako ALBISTEAK:

#### Hizkuntza politika eraginkorra eskatu die Kontseiluak alderdiei

Normalizazio prozesuaren erritmoa azkartzea ezinbestekotzat jotzen du euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak.

**Berria:** [http://paperekoa.berria.info/berria/2012-07-28/007/001/hizkuntza\\_politika\\_eraginkorra\\_eskatu\\_die\\_kontseiluak\\_alderdiei.htm](http://paperekoa.berria.info/berria/2012-07-28/007/001/hizkuntza_politika_eraginkorra_eskatu_die_kontseiluak_alderdiei.htm)

#### Enpresarean aurkeztu dute:euskaraz lan egiten duten enpresen azoka

Euskaraz lan egiten duten enpresek elkar ezagutu eta esperientziak trukatu ahal izango dituzte aurten, lehen aldiz, *Enpresarean* izeneko azokan; urriaren 2an egingo dute, egun osoan, Donostiako Kurasaalean.

**Berria:** [http://paperekoa.berria.info/harian/2012-07-27/011/002/enpresarean\\_aurkeztu\\_dute\\_euskaraz\\_lan\\_egiten\\_duten\\_enpresen\\_azoka.htm](http://paperekoa.berria.info/harian/2012-07-27/011/002/enpresarean_aurkeztu_dute_euskaraz_lan_egiten_duten_enpresen_azoka.htm)

#### V. Inkesta soziolinguistikoaren emaitza nagusiak grafiko argietan

Joan den martxoan EAEko datuak aurreratu ondoren, orain emaitza osatuak eman dira argitara, Nafarroako eta Iparraldeko emaitzak gehituta. Albiste honetan grafiko argiekin hobeto ikusi eta interpretatu ditzakegu emaitzak.

**Erabili.com:** [http://www.erabili.com/zer\\_berri/berriak/1342512676](http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1342512676)

#### Pasaiaiko Euskararen Plan Estrategikoak auzoka proposatzen ditu lehentasunak

2020ra arteko Plan Estrategikoa diseinatu du Pasaiaiko Udalak eta 67 lagunek parte hartu dute lan horretan, 53 emakume eta 14 gizonen. Antxoko eta San Pedroko lehentasunen artean dago bikote euskaldunen arteko erabileran eragitea. Trintxerpen, besteak beste, aisialdia euskalduntzeko lehentasuna izango dute.

**Diario Vasco:** <http://www.diariovasco.com/v/20120826/pasaia-errenteria/plan-estrategico-euskera-plantia-20120826.html>

#### Twitter euskaraz martxan da

Kosta egin zaio baina, azkenean, hemen da: Twitter euskaraz. Dagoeneko badugu mikroblogging sare sozial famatuaren interfazea euskaraz jartzeko aukera

**Kulturklik:** <http://www.kulturklik.euskadi.net/lang/eu/twitter-euskaraz-martxan-da-ya-es-possible-usar-la-interfaz-de-twitter-en-euskera-ya-es-possible-usar-twitter-en-euskera>

#### Ni Euskalduna: Aitona-amonak dituzu herriko kontuak esateko prest

NiEuskalduna! edo, beste hitzetan esanda, aitona-amonak euskaldunak bakoitza bere herriari buruz solasean. Gara egunkariak jaso zuenez, helburu hauek ditu Ni Euskalduna proiektuak: "Gure herrien historia eta euskalki ezberdinak biltzea, 2.0 komunitateetan euskararen erabilera sustatzea, Interneten eduki berri bat eraiki eta bertan adin guztietako pertsonak biltzea eta gure aitona-amonak teknologia berrietara hurbiltzea".

**Zuzeu:** <http://feedproxy.google.com/~r/zuzeu/~3/1XpM41x2uYE/>

#### Hizkuntza bat ez da galtzen...

Berriro ere, ideia bera modu desberdin batez, gu geu gara euskararen etsairik handiena. Modu eta iturri desberdinez hedatua, ideia indartsua da gure artean, euskaldunok dugu giltza, ardura

**Berria:** [http://paperekoa.berria.info/iritzia/2012-08-28/005/001/hizkuntza\\_bat\\_ez\\_da\\_galtzen.htm](http://paperekoa.berria.info/iritzia/2012-08-28/005/001/hizkuntza_bat_ez_da_galtzen.htm)

#### Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere.

**Zuzeu:** <http://feedproxy.google.com/~r/zuzeu/~3/LY5uRwS0GG8/>

#### Juan Carlos Moreno: "Kolonialismo mentala, hiltzunei beren hizkuntzak ezertarako balio ez duela sinestaraztea da"

Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalaritzako katedraduna eta Filosofia eta letretako doktorea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Bibliografia oparoa du eta ezaguna egin da hizkuntza minorizatuek, zein hizkuntza nazionalismoaz duen diskurtsoagatik. Korrontearen kontra igeri egitera ohituta, Zuzeuk elkarriketa egin dio.

**Zuzeu.com:** <http://feedproxy.google.com/~r/zuzeu/~3/mB9s2mW0wX4/>

#### Mingaineko korapiloaren sendagaia

*Guk euskaraz, zuk zergatik ez?* dio Urko abeslariaren kantu mitikoak eta Topagunea ere antzeko galderen bueltan oinarritu da *Zergatik ez?* deituriko tailerra antolatzeke garaian. 2010etik martxan diharduen ekimenak euskal hiztunak gogoetara bideratzea du xede nagusi, euskara mihian izan arren, lehenbiziko hitza gaztelaniaz egiten baitute askok.

**Noticias de Gipuzkoa:** <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2012/07/27/sociedad/euskadi/mingaineko-korapiloaren-sendagaia-mingaineko-korapiloaren-sendagaia>